

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroak aurrekontuaren % 93,11 bete zuen 2012an, eta haren erdia gastu sozialerako erabili zen

*Biztanle bakoitzeko egindako inbertsioa 5.625 eurokoa izan zen, eta kopuru horretatik 1.456 osasunerako ziren*

Miércoles, 26 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak 2012. urteari dagozkion Nafarroako Kontu Orokorren Foru Legearen proiektua onartu du gaurko bilkuran; urte horretako ekitaldia % 93,11ko betetze-portzentajearekin itxi zen. Gastuaren % 49 Osasuneko (941 milioi), Hezkuntzako (553 milioi) eta Gizarte Politiken (238 milioi) departamentuetan erabili zen, % 96,68, % 93,16 eta % 93,22 betetze-mailarekin, hurrenez hurren.

Foru Legearen proiektuan jasotzen denez, finkatutako aurrekontu bateratua 3.893 milioi eurokoa izan zen, eta handik 3.265 milioi bete ziren, hau da, 2011n betetakoarekin alderatuz, % 8,65eko murrizketa.

Ekitaldia BPGaren % 1,35eko defizitarekin itxi zen, Estatuak ezarritako % 1,50eko helburua betez. Lege-proiektua Nafarroako Parlamentura igorriko da orain, onar dezan.

### Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Politiken departamentuek gastuaren erdia hartzen dute

Departamentuka, Osasunak (941 milioi euro), Hezkuntzak (553 milioi) eta Gizarte Politikak (283 milioi) gastuaren % 49 hartzen dute, % 93,16, % 96,68 eta % 93,22ko betetze-mailarekin, hurrenez hurren. Lehendakaritza, Justizia eta Barneak, 95,48 (504 milioi); Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enpleguak % 98,30 (782 milioi). Betetze-portzentaje txikienekoak dira, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanak (% 83,27, 50 milioi); Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioa (% 82,13, 267 milioi) eta Sustapena (% 76,55, 225 milioi).

Biztanleko, batez besteko gastua 5.625 eurokoa izan zen, eta handik zati handiena osasunari (1.456), hezkuntzari (855) eta Estatuko karga orokorren sostenguari (808) zegokion; jarraian datoz, toki-erakundeen jarduerako finantzaketa (358), gizarteko zerbitzuak eta sustapena (358), eta zor publikoaren amortizazioa nahiz interesak (309); azpiegituretarako 271 euro erabili ziren; 199 justiziarako, herritarren segurtasunerako, espetxeetarako eta kanpo-politikarako; 156 nekazaritza, abeltzaintza eta elikadurarako; 149 etxebizitzarako; 139 administrazioaren jarduketarako eta 131 pentsioetarako.

Azkenik, biztanleko 96 euro erabili ziren I+G+Brako; 93 kulturarako; 90 enplegua sustatzeko; 70 industria eta energiako politika garatzeko; jarduketa ekonomikoetarako (garraio, merkataritza, turismo eta ETEetarako

diru-laguntzak), 66 euro; eta izaera sozialeko beste prestazio batzuetarako, 20 euro.

Partiden arabera, gastu-betetze handiena langile-gastuei dagokie, 1.072 milioi euro, % 99,96ko betetze-mailarekin. Gastu arrunta 555 milioi eurokoa da, eta handik 413 material, hornidura eta beste zenbaitetarako erabili zen; 63 osasun-laguntzako itunetarako; alokairu eta kanonetarako, 58 milioi; konponketa, mantentze-lan eta kontserbaziorako, 17,3 milioi; eta zerbitzuen kalte-ordainetarako, 2,4 milioi euro.

Benetako inbertsioei dagokien kapitulua 142 milioi eurokoa da. Atal horretan betetako % 68,32 bi departamentutan batzen da; Sustapenekoan eta Etxebizitzakoan, 65 milioi inbertitzen dituenak (% 45,63) eta Osasunekoak; azken honek egindako 32 milioiko inbertsioarekin Nafarroako Gobernuak 2012an inbertsioan egindako ahaleginaren % 22,69 da.

### **Enpresako sektore publikoa**

2012an zehar, sozietate publikoen bateratu gabeko emaitzak 115,8 milioi euroko galerak izan ziren; 2011n, 56,8koa izan zen.

Zifra guztiak kontuan hartuz, 2012an etekin handiena lortu duen enpresa NASUVINSA izan da 2,72 milioi euroekin; jarraian, Salinas de Navarra, SA (1,04 milioi) eta TRACASA (1,02 milioi) datoz. Galerei dagokienez, galera-bolumen handiena honako enpresa hauek izan dute: SODENA 61,28 milioi euroekin, CPEN 35,75 milioirekin, Ciudad Agroalimentaria de Tudela SA 5,87 milioirekin, Suministros y Servicios Unificados de Carrocería, SL 5,82 milioirekin, Navarra Deporte y Ocio, SLU 4,79 milioirekin eta Empresa Navarra de Espacios Culturales, SAU 4,32 milioi euroekin.